

B

BARREN

TOKIKOM

Hijano aita-semeak, matematiketan maisu



Etxean, sailkatu zaborra gaika

Eman izena edukiontzi
marroia erabiltzeko:
943 741 050 edo arreta@elgoibar.net




aek

Euskara praktikoa



*Hablarás en euskara desde el primer día,
gracias a nuestra metodología basada en la práctica.*



MARIA: →

"NIK EGA".

← M^o ANGELES:

*"Estoy aprendiendo,
sobre todo,
por nuestra hija"*



← ROCIO:

*"Deseo aprender
euskara para
integrarme en todos
los ambitos"*



AEK euskaltegian

Matrikula erdia eta beka sistema udalari esker.

Izena eman irailaren 25a arte

Plaza Txikia 3, - Tel: 607 601 423 - elgoibar@aek.org



elgoibarko bertso eskola



Ikasturte berriarekin batera. bueltan!

Bertsotan ikasi edota egin
nahi baduzu. eman ezazu izena
Beinke bertso-eskolan!

Bertsolarien bisitak. irteerak. sormena
landu. ekintza bereziak...

Zeinentzat: nahi duenarentzat!

Izena emateko: IRAILAREN 25era arte. www.elgoibarkoizarra.com webgunean,
atxutxiamaika@elgoibarkoizarra.com-en edota Elgoibarko Izarran.

Prezioa: 25€ urte osoan!



Angel Ugarteburu



Andres Alberdi

Ikas-
turte berri on,
Andres! Ez dok
atzo goizekoa irai-
laren usain berezi hau;

gure haurtzaroan eta gaz-
taroan ere halaxe zuan. Udako
eguraldi onak jarraipena izaten jok
askotan, baina eguzkiak nekezago egiten

jok goizetan mendi ertzean gora eta azkarrago arratsaldeetan behe-
ra. Mendira joan eta han ira usaina nagusi; ez dok alferrik iraila.

Umetan Santa Eufemia biharamuna, irailaren 17a, izaten gen-
duan Milloiko auzo eskolan ikasturte berria hasteko data ziurra. Ha-
ra, Santa Eufemiara, joaten gintuazan inguruko asko erromes egun
seinalatu horretan. Geroago ere irailaren azken egunak izaten zituan
ibilbide berriari hasiera emateko abiapuntu. Gaur arte.

“Bajaukak udari agur egiten dion irailak halako xarma berezi bat”

Bajaukak udari agur egiten dion irailak halako xarma berezi bat.
Udatik zer edo zer gordetzen jok oraindik eta udazken aldakor eta
koloretsuaren atarian lagatzen gaitik. Ikasturtea ume jaioberria dok
oraindik, dena proiektu eta asmo eder. Udako plan lasaia atzean uz-
tea galanki kostatu arren, ilusioz jantzi eta indartu beharra sentitzen
joagu. Halaxe hasi najoan, 65 urte aparte ez izan arren, 2006ko irai-
lean nire lan lotuaren azken txanpa izango zen ikasturtea: ume be-
rri bat besoetan hartzen duenaren bizipozez. Beraz, ez dok edade-
aren kontua ilusioa izate hori, gizakiaren berezko beharra baino.

Pozez eta indarrez bizi izatea jagokiguk eta, zereginik falta ez
denez, bizitzak emango ahal joskuk erretiratu barik geure heintxoan
jarraitzeko zio eta betarik, irailak berezko duen ilusio puntuz! Hala
opa deuat, Andres, hiri eta gure antzera bizi diren beste elgoibarta-
rei ere.

Ilusioa gainezka zeriok hireari, Angel, eta
biziki pozten naik hala izateak. Ez duk abili-
dade makala hirea. Zer-eta, bizitzaren irailan
ere gustura gure maisu jubilatua! Ez dik jende
guztiak hori hain ozenki esaten!

Getaria eta Berriatua ez dituk inondik ere
berdinak, baina oroitzen onak ditiat nik ere
irailarekin, bai ume-garaikoak, bai geroagokoak.

Xarma berezia zian irailak kostaldean: lainezaz josita-
ko udatiar madrildarrak alde eginda, bertakoak bakarrik he-
rrian; Zarauzko euskal jai jendetsu bezain indartsua auzoan; itsasoak
bestelako usain eta koloreak bere azalean; mahastietako txakolin-maha-
tsa gainezka oparo mahats-mordoetan; hegaluze-garaia bere onenak
emanda, arrantzaleak etxerako irrika bizian; eskolan *gradu* bat goragoan
izateko garaia... Ilusio berrien atari han eta orduan ere iraila. Zapora eta
gomuta goxo horiek oso barnean ditiat oraindik.

Elgoibarren nagoenez geroztik ere, gustura eta pozik entzuten ditiat
(nahiz ez naizen kalera ateratzen) sanbartolomeetako amaierako astele-
henetako goizeko zazpietako txapliguak eta Mauxitxa txarangaren joa.
Irailari poza, baikortasuna eta energia ematen ziotek.

“Bizitzaren irailan ere gustura gure maisu jubilatua!”

Sarri sumatu izan diat, ordea, kontrakorik ere. Funts handirik gabeko
aiene asko entzun izan diat bazterretan irailaren etorrerarekin. Jendea lur
jota, porru eginda, burua ezin altxaturik; zergatik-eta, lanera joan behar
duelako! A zer drama! Izena ere jarri ziotek, alajaina: “irailaren biko sindro-
mea”. Udan sano asko ibili den jendea gaixo dagoela sinisterainoko ate-
zu larrian jartzen duk! Kosta egiten zaidak sinistea.

Zerbait opa behar-eta, heuk aipatu bezala, ea denok ere irailak be-
rezko duen ilusio-puntu horren jabe egin eta baikortasunez moldatzen
garen (ikast)urte osoan zehar!

OROIMEN MEZA

FRANCISCO GURIDI MAZKIARAN



2013ko abuztuaren 16an hil zen Iruñan.
Haren oroimenez meza izango da zapatuan, irailak 14,
arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko San Bartolome parrokiari.
Joango zarretenoi eskerrak alde z aurretik.



Barren

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 744 112 - Faxes: ☎ 943 743 704
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
Publizitatea: ☎ 943 743 704
E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia
HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia
PUBLIZITATEA Leire Rubio
MAKETATZAILEA Zaldua Arnaiz
MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue
KOLABORATZAILEAK Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga, Danele Sariugarte, Mikel Olaizola, Esti Gonzalez, Miren Vives, Maitane Mendikute, Janire Elordi
INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.860 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:

ELGOIBARKO IZARRA 50
KULTUR ELKARTEA

Laguntzaileak:



ELGOIBARKO UDALAK

elgoibar
biZi biZKuz



MENDIARRIKO UDALAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



GUTUNAK



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Apustua irabazi dugu!

Erronka jarri genion geure buruari eta ez nolanhikoa. Partehartzean oinarritu nahi genuen aurtengo Gazteen Eguna, baina benetako parte-hartzean. Egun hori, guretzat, ez baita zezenarekin edo dianarekin hasten. Egun hori guretzat aspaldi hasi zen, eta oraindik ez da bukatu.

Gogotsu baina beldurrez jo genuen erronka. Izango zuen erantzunaren beldur ginen, gutxi izatearen beldur. Pikutara, baina, beldurrak! Asko izan gara eta asko egin dugu! Orain artean sekula elkarren alboan jarri gabeko gazteok elkarlanean antolatu dugu geure eguna. Ikusi dugu zenbat gaitasun dauden ezkutuan herriko gazte-koadrila bakoitzean, gustuko sorpresa izan da hau dena. Eta eguna bera... Lurretik bost bat zentimetro gorago pasa genuen eguna guztiok. Jolasen poteora iritsi ginenerako harrotasuna irakur zitekeen gure aurpegietan. Aurten bidean geratu direnei egin nahi diegu keinu. Animatzeko esatea baino ez zaigu geratzen. Nahikoa da ikustea zenbat daukagun irabazteko!

Bukatu baino lehen gure eskerrik beroenak lagundu diguzuen guztioi. Udaletxeko brigadako jende jatorrari, Sigma jatetxeari, egunean zehar epaimahai moduan ibilitako hiru altxorrei. Eta kaletan txalo eta irribarre egin diguzuen guztioi ere, tori zuen txaloak bueltan!

Hobetzekoak ere baditugu, noski, eta apuntatu ditugu balorazio bileran ateratako guztiak. Horiei ere helduko diegu. Orain, egun batez goia jo duena urte osoko dinamika izatera pasatzea baino ez zaigu geratzen. Horra, bigarren erronka.

Hau hasi baino ez da egin!

Gazte Asanblada eta Gazteen Eguneko koadrila antolatzaileak

Elgoibar Zero Zabor

Bosgarren edukiontzia emaitza oso txarrak ematen ditu. Elgoibarren %10 inguru igo du gaika bildutako hondakinen kantitatea, %30 ingururaino. Beste tokietan ere emaitza antzekoak ematen ditu sistema horrek. Borondatezko eredu bat denez, bakoitzak nahi duen zabor kantitatea sortu dezakeela onartzen du; lotsagarria.

Gure aburuz, sistema eraginkor baten funtsa gaikako bilketaren derrigortasunean dago. Inork ez luke zaborra nahastuta biltzeko eskubiderik izan behar. Gu zabor-biltze sistema eraginkorren alde gaude. Eta oraingoz bi sistema dira

emaitza ezin hobeak ematen dituztenak: atez ateko zabor-biltze sistema herri handietan (Gipuzkoarren zortitik batek erabiltzen du jada sistema hori), eta derrigorrezko auzo-konposta herri txikietan. %80tik gorako emaitzak ematen dituzte ezarri diren herri guztietan. Gu sistema onenaren alde gaude Elgoibarrentzat; atez atekoaren alde. Auzo-konposta eta zaborraren problematikaren kontzientzia ere bultzatuko ditugu, gaingarri gisa. Gauzak horrela, Elgoibarko gaur egungo sistema gaitzesten dugu, oso atzean gaudelako lan txukuna egiten ari diren beste herriekin alderatuz. %80tik gorako emaitzak lortzen dituen sistema dagoela ikusirik, helburu minimo bezala ehuneko hori lortu behar dela uste dugu.

Azkenik, esan gure xedea zero zabor gizarte bat den heinean, zaborra murriztu eta berrerabiltzearen aldeko pausoak ezinbestekoak direla, birziklatzeaz gain. Etorkizuna zaborrik gabeya izango da, edo ez da etorkizunik izango.

Elgoibar Zero Zabor

Kolorea berreskuratu dugu

Konturatuko zineten eskuartearen duzuen alea koloretan datorrela. Bai, urte hasieran galdu zuen kolorea berreskuratu du BARRENek. Azken urteotan, arrazoiak arrazoi, oso larri gabiltza BARRENeko aurrekontuak berdintzeko, eta gastuak murrizteko beste erabaki bat izan zen BARRENI kolorea kentzea. Pena eman zigun, baina gustukoak ez diren erabakiak ere hartu egin behar izaten dira batzuetan.

Harrezkero asko izan zarete BARREN koloretan nahi duzuela esan diguzuenok. Batek baino gehiagok esan diguzue ordaintzeko prest ere bazaudetela BARRENek kolorea berreskuratzen. Zuri-beltzeko BARREN tristea begitantzen zaizue, eta BARRENek koloretako trajea merezi duela diozue.

Egoera ekonomikoak ez du hobera egin, baina kasu egingo dizuegu. Ahalegin berezia egingo da goaz zuen eskaria betetzeko, eta aste honetatik aurrera BARREN koloretan izango da, berriz ere. BARRENI gure onena emateko erronkari eutsi egingo dio Elgoibarko Izarrak, eta zeregin horretan, orain arte moduan, zuen parte-hartzea eta babesa beharko dugu aurrerantzean.

BARREN astekaria

MATEMATIKA FAMILIAKO KONTUA



Matematikak. Hitza entzun orduko atzera egiten dute askok, matematika irakasgai zaila dela sentipen nahiko hedatua baita. Ez da hori hijanotarren kasua. Aitak, Jesus Hijanok, zientziak irakasten ditu Elgoibarren duen ikasketa zentroan, eta zientzia zehatzekiko duen maitasuna bere bi semeei transmititzen asmatu du. Maitasuna eta trebetasuna, prestigio handiko matematikako lehiaketak irabazi dituzte-eta, batak zein besteak. Zaharrenak, Albertok, Euskadiko Olinpiada Matematikoa irabazi zuen orain dela bi urte. Gazteenak, Guillerrok, aurten irabazi du lehiaketa hori, eta joan den uztailan, ohorezko aipamen berezia eskuratu zuen Andorran, XXIV. Olinpiada Matematica Nacional Española delako lehiaketan. Matematiketan trebetasun hori izatera nola iritsi diren jakin nahian jo dugu euren gana, baina, batez ere, matematikak nola maite daitezkeen argitzeko eskatu diegu.

M

atematikek ez dute estimu sozial handiegia gurean. Ikasleek aurreiritzi asko dituztela uste du Jesus Hijanok. Matematikak zailak direla, bereziki. “Ez dut gorroto hitza erabiliko, baina jendeari, oro har, ez zaizkio matematikak gustatzen. Matematikari trebeak baloratuta daude bai, baina, era berean, jendeak ez du ezer jakin nahi matematikez. Ez da batera irakasgai popularra”, dio fisika eta matematiketan lizentziatua den Hijanok (UNEDen, Urrutiko Hezkuntzarako Espainiako Unibertsitatean atera zituen bi lizentziaturak. Ingeniari Tekniko ikasketak ere badauzka).

Ulertu ezin dena ezin daiteke maitatu. Alabaina, estimu falta hori, maila batetik aurrera, ulergarria ere badela aitortu du Hijanok. “Eta honek zertarako balio du? Galdetzen dute askok. Zaila baita matematikei erabilpen praktikoa topatzea”. Ideia horretan sakonduz, zientzia teknologiaren ahizpa behartsua dela dio. “Zientziak ikasita ez zara sekula aberastuko. Aldiz, ingeniari bat ikasi eta Interneten erabiltzeko programa bat asmatuz gero, arrakasta ekonomikoa lor dezakezu, agian. Izan ere, erabilgarria izan daitekeen zerbaiti lotuta egon behar du berrikuntza teknologikoak. Aldiz, teorema batek ez dauka erabilpen praktikorik”. Hala eta guztiz, Alberto eta Guillermo Hijano anaiek argi dute euren etorkizuna zientzia zehatzei estuki lotua egongo dela, oraina eta iragana egon den moduan. Albertok zalantza izpirik gabe dio Fisika

ikasketak egingo dituela Unibertsitatean. Aurrez, baina, Batxilergoko bi ikasturteak batean egiteko asmoa du. Guillermok erabakia hartu gabe du oraindik, baina kimika eta matematikak asko gustatzen zaizkio. Are gehiago, anaia zaharragoak moduan, gozatu egiten du problema matematikoak askatzen.

Urteetako lanaren emaitza

Aitak txikitatik trebatu ditu semeak. Hitz egiten ikasi zutenean, “jolasaren bitartez” murgildu zituen matematiketan. Sasoi haietako pasadizo bat etorri zaio burura: “Gogoan dut Guillermo babarrun aleak kontatzen ari zen egun bat. Sudurzuloan sartu zuen aleetako bat, eta medikuarengana eraman behar izan zuen amak korrika eta presaka”. Anekdotak alde batera lagata, kontzeptuak oso azkar ulertzen zituztela konturatu ziren gurasoak. “Albertok, adibidez, ia eskolaurrean egiten zituen eragiketak zenbaki negatiboekin. Eta Guillermok, berriz, lehen mailako ekuazioak ebazten zituen Lehen Hezkuntzako lehen mailan”. Harrezkero, semeek matematiketarako duten erraztasuna sustatu dute gurasoek. Gaur egun antolatua dute ikasteko metodologia: astelehenetik ostegunera ordubete eskaintzen diete matematikei. Konstantzia horixe da aitaren iritziz gaur egun matematiketan duten mailara iristeko sekretu bakarra. “Norbaitek esango du egunean ordu bat eskainita ezinezkoa dela horrelako emaitzak lortzea, baina urteetan metatuta -

ko irmotasun horren emaitza da”.

Konstantzia hori askatasunarekin uztartu dute: “Beti saiatu gara matematikak jolas modura planteatzen, derrigortasunetik aldentuz. Horretarako badago eskola. Ezagutu ditugu matematikekin gure antzera jokatu duten gurasoak ere, baina umeak guk baino askoz gogorrago hartzen dituztela iruditu zaigu. Olinpiada Matematikoetara joan direnean ere, euren baino askoz ordu gehiago sartu dituzten ikasleak ezagutu dituzte, eta ikastetxeek antolatutako klase bereziak jaso dituzte askok”. Aitaren berbak baieztatu dituzte semeek: “Ariketak egiteko gogorik ez badugu, edo atsedean hartu nahi badugu, beti izaten dugu horretarako baimena”, dio Guillermok. Ikasketa zentroan dituen ikasleekin eta semeekin irakasteko metodo berdina “baina erritmo ezberdinetan” darabil Jesussek. Semeek, ordea, abantaila nabarmena dute ikasleen aldean, uneoro dutela aita alboan zalantzak argitzeko.

Heziketa osoa

Gurasoek ez dute semeen heziketa matematiketara mugatu nahi. Ahalik eta hezkuntza osoena eman nahi diete, “nahiz eta beti dagoen zerbait gustukoagoa dena. Matematikak gure kasuan, eta sakontzeko aukera izan dugu hor”.

Hizkuntzetan ere jantzi nahi dituzte semeak. Aitak berak, bere kabuz



$${}_7 \log_7 x^3 \sqrt[3]{b} - \log_7 3^{(1+2)} \quad \log_7 \frac{x^3 \sqrt[3]{b}}{3^{(1+2)}} \quad 3 \log_7 x + \frac{1}{5} \log_7 b - (x+2) \log_7 3 \quad \log_7 x^3 + \log_7 \sqrt[3]{b} - \log_7 3^{(1+2)}$$

“Beti saiatu gara matematikak jolas modura planteatzen, derrigortasunetik aldenduz”

JESUS HIJANO

ikasi zituen euskara eta alemana. “Erabat eralduna nintzen eta Bakarka izeneko metodoa erabiliz ikasi nuen euskaraz”. Udako oporretan euskara barnetegietara joaten zen edo Alemaniara zein Austriara bidaiatzen zuen.

Albertok eta Guilmok iaz gainditu zuten Ingeleseko First azterketa. Barakaldoko BE-Cen egin zuten azterketara joandakoen artean Guillermo zela gazteena eta Alberto hurrena nabarmendu du aitak. Era berean, Albertok ikasturte honetarako matematika gaindituta zuenez, ordu horiek EGA (Euskararen Gaitasun Agiria) azterketa prestatzeko erabili ditu. “Eta denborak ez du gehiagorako ematen”, dio aitak irribarrez. “Lagunekin ere atera nahi baitute edo tenisean jokatu. Beste ume batzuek Xbox-arekin pasatzen duten denbora matematikari eskaintzen diete, eta ez pentsa ez dutenik Xbox-arekin jolastean, nik nahi nukeena baino gehiago gainera... Arratsaldea oso luzea da. Denerako denbora dago, ondo antolatuz gero”.

LOGSE legea, inflexio-puntua

Jesus Hijanoren akademiatik makina bat ikasle pasa dira azken urteetan. Ikasleen prestakuntza maila neurtzeko behatoki apro-

posa eduki du. Bere ustez, “inflexio-puntu” bat egon zen LOGSE legea ezarri zutenean. “Hezkuntzarentzat erabateko porrota izan zen”. Bere belaunaldian matematika eta fisikari jantziago irteten zirela ikasleak defendatzen du. Kimikan ez du horrenbesteko aldeirik igartzen. “Lege horrekin bi urte atzeratu zuten guztia eta asko jaitsi zuen ikasleek zientzietan zuten maila. Hala, gaur egun Unibertsitatea amaitzen dutenek ez dakite guk jakin ahal genuena. Unibertsitateko irakasleek ere kexu dira ezin dutelako orain hogeitau urte eskatzen zutena eskatu, ikasleek maila nahikorik ez dutelako. Hala ere, onartu behar da beste alor batzuetan hobekuntzak izan direla. Ingelesean, adibidez, hobeto prestatuta daude gaur egungo ikasleak”.

Munduari begiratzeko ikuspeezberdina

2012ko Euskadi Ikerketa Saria irabazi zuen Luis Vega matematikariak esana da Matematika soinketa mentala dela. Bere hitzetan, asko laguntzen du buruko ideiak ordenatzen, eta ikaragarri erabilgarria da hori orijinala izateko. Jesus Hijanok azaldutakoaren arabera, horregatik jotzen dute enpresa askok matematikariengana. “Sekula prakti-

kan jarriko ez ditugun hainbat gauza ikasten ditugun arren, horiek ikasteen edozein problemari irtenbidea topatzeko gaitasuna dugula diote-eta”. Hijanoren esanetan, BBVA edo Santander moduko banketxe handiek, esaterako, horrexegatik dauzkate matematikariek eta fisikariek osatutako talde bereziak. Burtsaren funtzionamendua ikertzen dute edo produktu bereziak prestatu. “Zientzia fikzioa dirudien arren, horretan dihardute”. Ameriketako Estatu Batuetatik datorren kontua da. Han, New Yorkeko burtsan lan egiten dutenatariko askok doktoretzak dituzte fisika eta matematikan”.

Era berean, matematikak sakon eza-gutzeak munduari begiratzeko beste ikuspegi bat ematen du. “Ez da formulak eta ekuazioak edonon eta uneoro ikusten ditugula, baina maila batetik aurrera, beste modu batera ikusi eta ulertzen dira gauzak”, azaldu du Albertok matematikak ematen duten ikuspegiak. “Era berean, zenbat eta gauza gehiago jakin, gutxiago dakizula konturatzen zara. Gehiago dira sortzen diren galderak erantzunak baino”, bota du aitak. “Inoiz amaitzen ez den zirkulua da”, itxi du argudioa hiruretan gazteena den Guilmok.

elgoibar ikastola

Konfiantzan IKASTOLA

HH 0-1 (2012an eta 2013an jaiotakoak)

azarotik otsailera hasteko matrikula zabalik

irailaren 16tik 27ra

Ikastola ezagutzeko aurkezpen bilera irailaren 16an, 19:00etan

Euskaltzaleen Festa antolatu dute irailaren 28rako Deba bailarako euskara elkarteek

Aurten Soraluzen izango da TopaEguna

Euskaltzaleen jaieguna izango den TopaEguna antolatu dute Topaguneak eta Deba bailarako euskara elkarteek, Elgoibarko Izarra tartean. Soraluzen egingo dute jai irailaren 28an, eta antolatzaileek esandakoaren arabera, euskaltzaleen ekarpenaren eskertze eta aldarrikapen festa izango da. Hori dela eta, euskaldun eta euskaltzale guztiak gonbidatu dituzte parte hartzera, eta Elgoibarko Izarrak ere elgoibartarrak gonbidatu nahi ditu festara. Eguna 11:00ak aldera hasiko da. 12:00etan Jon Sarasuak bere azken liburua aurkeztuko du, eta egunean zehar adin guztietarako ekintzak izango dira. Jolasak, herri bazkaria, erromeria eta musika saioak ere ez dira faltako, eta eguna bukatzeko, Kokein eta Gose taldeen kontzertuak ikusi ahal izango da.



Irailaren 27ra arte dago zabalik Bertso Eskolan izena emateko epea

Elgoibarko Izarrak ireki du Bertso Eskolan izena emateko epea, eta interesatuek irailaren 27ra arte izango dute aukera. Orain dela bi urte jarri zuten martxan Beinke bertso eskola, bertso larritza ezagutzeko, ahozkotasuna eta komunikazioa lan-tzeko eta hizkuntzarekin jolasean ikasteko, eta arduradunak "pozik" daude bertso eskolaren jardunarekin. Interesatuek 25 euroko matrikula ordaindu beharko dute. Internetez, www.elgoibarkoizarra.com webgunean eman daiteke izena, eta bestela, Elgoibarko Izarrak Ubitarten duen lokalera jo daiteke.

'Oin Alai' egitasmorako boluntarioak behar dira



Oin alai egitasmoarekin hasi zuten ikasturtea joan zen astean Elgoibarko hainbat ikaslek. Ekimeneko arduradunek ohartarazi dutenez, momentuz ume gutxi eman dute izena aurtengo ikasturterako, eta era bere-

an, umei laguntzeko prest dauden boluntarioak ere behar dituzte. Herri Eskolarako bidean, Melitongo zubitik eta Santa Anako bide adarretan behar dituzte boluntarioak, eta Ikastolara joateko, aldiz, Basartetik Ikastola-

rainorako adarrean. Horiek motibatu eta saritzeko umeen artean bizikleta bat zotz egingo du Udalak hilero. Era berean, udaltzainen laguntza jasoko dute Oin Alaiko boluntarioek zenbait egunetan. Autoak noiz eta nola gerarazi behar dituzten erakutsiko diete udaltzainek, besteak beste. "Boluntario izateko beldurrak kentzea da gure asmoa", esan dute.

2010/2011 ikasturtean jarri zuen abian Elgoibarko Udalak Oin Alai, umeak eskolara oinez joatea sustatzeko ekimena. Orditik hona jaitsi egin da Oin Alain parte hartzen duten umeen eta boluntarioen kopurua eta arduradunak kezkatuta daude.

Istripua **Lekuko bila ari dira**



Irailaren 5ean emakume bat harrapatu zuen auto batek Maalan, San Lazaro egoitza inguruan. Emakumearen familiakoek jakinarazitakoaren arabera, gidaria ez zen geratu, eta lekuko bila ari dira, gertatutakoa argitzeko. 38 urteko emakumea martitzenean hil zen, eta medikuek esandakoaren arabera, istripuko kolpeen ondorioz hil izana posible dela jakinarazi dute senideek. Hori dela eta, norbaitek zerbaite ikusi balu, beraiekin harremanetan jartzeko eskatu dute. 620 855 101 (Patxi).

Zenbakia **53.527**

53.527 erabiltzaile izan dira aurten Mintxetako igerilekuetan, iaz baino 975 gehiago. Patronatuko arduradunen arabera, aurtengo denboraldia iazkoaren antzekoa izan da erabiltzaile kopuruari dagokionean. Arduradunen esanetan, denboraldia oso makal hasi zen, ekainean egin zuen eguraldi kaxkarrarengatik, baina ekainaren 25etik aurrera eta uztailea osoan zehar, eguzkia lagun, erabiltzaile kopuruak gora egin zuen. Ekainean 7.756 erabiltzaile izan ziren Mintxetako igerilekuetan, eta uztailean 31.555; inoiz izan den kopururik altuena, alegia. Abuztuan 12.216ra jaitsi zen erabiltzaile kopurua. Arduradunek emandako datuen arabera, 2009. urtea izan da irain artean jendetsuena Mintxetan, 55.056 erabiltzaileekin.



Asier Osorori egokitu zaio Txiki Eguneko errifaren saria

Elgoibarko Izarrak egin du Txiki Eguneko errifaren zozketa, eta 1.537 zenbakiarekin Asier Osoro izan da sariduna. Sigma jatetxean bi lagunentzako jatordua egokitu zaio. Zorionak!

Miski elkartearen zozketa

Miski elkarteak egin du zozketa, eta sarituek herriko jatetxeetan jatordua egiteko aukera izango dute. 2.948 (Belaustegi), 34 (Gautxo), 1.301 (Gabi), 2.450 (Gorbea), 1.631 (Gran Siglo), 912 (Ibai Ondo), 741 (Iriondo), 2.234 (Karakate), 2.731 (King Kong), 1.082 (La Bodega), 301 (Lerun), 2.150 (San Pedro), 2.819 (Sigma), 135 (Txarriduna), 1.197 (Usatorre).

Esperientzia Eskolako zozketa

Baserritarren Egunean errifak saldu zituzten Debabarreneko Esperientzia Eskolakoek, eta 5.502 zenbakiarekin, Pedro Mari Agirregomezkorta izan da irabazlea. Arduradunek eskerrak eman dizkiete boletoak erosi zituzten guztiei.

Sallobenteko txahalaren zozketa

Sallobenteko jaietan txahala zozketatu zuten antolatzaileek, eta 88.983 izan da zenbaki saritua. Xabier Elustondo auzokideari egokitu zaio saria, eta txahalaren balioa dirutan jasotzea aukeratu zuen. Zorionak!





ESKERTZA

MARIA ISABEL GOMEZ VARGAS

*Gure ondotik joan zara,
baina betiko izango zaitugu
gure bihotzetan.*

Familiakoak

2013ko Irailaren 10ean hil zen, 38 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



V. URTEURRENA

NORA REY NOGALES

*Denborak dena sendatzen duela diote.
Ez dakigu.
Gero eta gehiago botatzen zaitugu faltan.*

1998/10/18 - 2008/08/11

I. URTEURRENA



CARMEN ORTUONDO AREITIOURTENA

*Zu izan zara gure poza
gure indarra, gure bidea.
Edonon zaudela ere,
beti egongo zara gurekin.*

2012ko irailaren 10ean hil zen, 82 urte zituela. I.urteurreneko meza zapatuan, irailaren 14an, izango da arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko San Bartolome parrokian. Joango zaretenoi eskerrak alde zuretik.





II. URTEURRENA

LEIRE UGARTEBURU GABILONDO

*Beti gurekin
maitasunaren akorduan*

Etxekoak

2011 - 08 - 18



I. URTEURRENA

JOSE LOIOLA IRIONDO

*Isiltasunean izan dira
zure lana eta bizitza,
beti izango zara
gure oroimenean eta bihotzean.*

2012ko irailaren 13an hil zen,
79 urte zituela.



*Ez zaituztegu inoiz ahaztuko, ez zaituztegu inoiz galduko
gure bihotz barrenean eramango zaituztegu betiko.*



**JOSETXO
JUARISTI ZABALA**
1987-09-07



**LOREA
JUARISTI ZABALA**
2003-09-05



**JOSE LUIS
SORALUCE LIZUNDIA**
2004-06-19



**ITZIAR
JUARISTI ZABALA**
2009-04-06

PAKO ETXEBERRIA

ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEKO PRESIDENTEA

“Giza Eskubideen urraketa kasuetan ezin gara neutralak izan”

2000. urtean hasi zen Aranzadi zientzia elkarteak 36ko Gerran hildako gorpuzkinak deshobiratzen, eta ordutik gaur egunera arte 600 bat gorpuzkin aurkitu dituzte, 70 bat deshobiratzean. Memoria historikoa berreskuratu eta egia ezagutzeko eginiko lan honi buruzko erakusketa jarri dute ikusgai Kultur Etxean, Elgoibar1936 taldekoen laguntzaz. Hilaren 22ra arte egongo da erakusketa bisitatzeko aukera. Pako Etxeberria auzi mediku eta Aranzadi zientzia elkarteak presidentea gida dugu deshobiratze gehienak, eta tartean Elgoibarren egindako bi: Madariagan eta Zirardamendin. Datorren eguaztenean, hilaren 18an, deshobiratze horien atzean ezkutatzen denari buruzko hitzaldia eskainiko du Etxeberriak Kultur Etxeko hitzaldi gelan, 19:00etatik aurrera.

Ainhoa Andonegi



Zuk esana da giza konfliktoetara, edo gizaki batzuk beste batzuen kontra sortzen ditugun gatazka egoeretara, gerturatzeko egin zinela auzi mediku. Urte guzti hauetan zer eman di-zu honek?

Medikuntzaren alor honetan barneratzeak aukera izan nuen, eta horri esker giza konfliktoetan eragiteko alor interesgarria ezagutu nuen. Euskal Herrian auzi medikuntzak ez du tradizio handirik izan, eta ohore bat izan da niretzat Zuzenbidera gerturatzen den Medi-

kuntzaren atal hau indartzen eragin izana.

Auzi medikua, irakaslea, Aranzadiko zuzendaria... Salvador Allende, Lasa eta Zabala, Jon Anza, Pablo Neruda... Curriculum luzea duzu, baina azkenaldian 36ko Gerrako deshobiratzeetan ikusi izan zaitugu, bereziki. Zein garrantzia dute gaur egun deshobiratze horiek?

Argudio tekniko eta zientifikoei esker dikadura frankistan biktima horiek jasan zuten injustizia erakutsi dugu. Eta horrek, biktima

ahaztuen sufrimendua neurtzeko aukera eman digu. Biktima horientzat ez da egirik, justiziarik edota ordainik egon, eta hiru horiek dira Giza Eskubideen oinarriak. Metodologia berbera da hemen, Txilen edo Saharan.

Zein izan ohi da deshobiratzeen prozedimendua?

Probak biltzeko beharrezkoak diren lau ekintza burutzen ditugu normalean: lekukotzak jaso, artxiboetan dokumentazioa aurkitu, deshobiratzeak egin eta azkenik, gor-

puzkinak aztertu. Horrek guztiak errekonozimendu publiko eta instituzionala egiteko balio behar du. Lehenik egia ezagutu behar da, eta gero erakundeek ofizial egin behar dute.

Deshobiratzeak burutzeko orduan zein zailtasun izaten dituzue?

Beranduegi hasi gara gai honekin eta leku-ko gehienak desagertu egin dira. Hori da txarrena, historia gogor horretako lekuko eta protagonistak falta zaizkigula. Horri guztiari iniziatiba publikoen falta gehitu behar zaio. Hala ere, gai honetan eragiteko gero eta interes handiagoa erakusten dute udaletxeek, eta udalerrietan lan handia egin daiteke biktimen eta senideen oinarriko eskubideen alde.

Elgoibarren bi deshobiratze egin dira; bata Madariagan eta bestea Zirardamendin. Beste zenbat hobi daukazue lekututa hemen? Prozesuaren zein unetan daude horietako bakoitza?

Elgoibarko bizilagun batzuei esker, hilobi horien berri izan genuen orain dela urte batzuk eta txosten bat egin genuen. Informazio horri tiraka, bi deshobiratze burutu ditugu Elgoibarren; azkena, Zirardamendin. Deshobiratze horretan lau gorpuzkin aurkitu genituen eta horietako biren ADNa identifikatu dugu. Senide batzuekin kontrastatzen dihardugu orain. Hezetasunak eta zuhaitzen sustraiak hezurak kaltetu dituz-

te, eta ondorioz, identifikazio hori egitea dirudiena baino askoz zailagoa da.

Elkarrizketaren batean aipatu duzu auzi medikuaren zeregina egia aurkitzea dela. Egia bilatze horrek arazorik sortu al dizu?

Egira gerturatu egiten gara, baina egia bilatzea ez da ia inoiz erabatekoa izaten. Egi hori egi materiala izaten da, interpretatu eta modu legitimoan erabili beharrekoa. Zenbaitetan mindu izan dira batzuk egia bilatze horretan. Joan zen astean esate baterako, Saharan aurkitu dugunagatik mindu egin dira batzuk, baina hori beraien arazoa da, ez geurea. Egia bilatzearen kontra agertzen direnek defizit demokratikoa erakusten dute.

“Tristura eta poztasun sentimendu bikoitza izaten dute senideek egia jakitean”

Zein izaten da senideen jarrera egia hori jakiten dutenean?

Tristura eta poztasun sentimendu bikoitza izaten dute senideek egia jakitean. Aspaldian falta izan zaien albiste hori egiaztatzeak eta

hori gertatu ez balitz euren bizitza desberdina izango litzatekeela pentsatzeak tristura eragiten die. Aldi berean, gertatutakoa egiaztatze-ko aukera izateak poztasuna ematen du. Beti erakusten dute eskerrak emateko jarrera. Azken batean, egia ezagutzea mina konpontzeko ariketa bat da.

Zuri entzuna da giza gatazka egoeretan ezin dela neutrala izan, baina inpartziala eta objektiboa izan behar dela diozu. Zer esan nahi duzu horrekin?

Horixe da gako. Giza Eskubideen urraketa kasuetan ezin gara neutralak izan, baina gatazka horien analisisian objektiboak eta inpartzialak izan behar dugu. Eta batzuek kontrako dioten arren, asistentzia eta tekniko egoeratik ekidistanteak izan behar gara. Baldintza horietan biktimak berdinu egiten dira eta guztiak eskubide berberak dituzte.

Zuen lana ezinbestekoa da justizia egiteko, baina ez da beti lortzen justizia egitea, besteak beste, justizia motel doalako. Horrelakotan zer sentitzen duzu?

Francoren krimen guztiak zigorrak gabe gertatu dira, eta horietako asko ikertu ere ez dira egin. Nire helburua gutxienez egi hori ezagutaraztea eta ofizial egitea da, baina oraindik lan handia daukagu egiteko, diktadura amaierako kasuetan batez ere. Adibidez, nola urratu ziren Giza Eskubideak Elgoibarren izan zen azken Salbuespen Estatuan? Nor dago hori guztia ikertzearen kontra?

DUINTASUNA BERRESKURATUZ, ERAKUSKETA ETA HITZALDIA



Zirardamendin ateratako argazkia

2000. urtean Emilio Silva (kazetaria, soziologoa eta Oroimen Historikoa Berreskuratzeko Elkartearen sortzailea) Aranzadi Zientzia Elkartearekin jarri zen harremanetan, 36ko Gerran Guardia Zibilek bere aitona fusilatu zutela-eta, haren gorpua aurkitzeko laguntza es-

katzeko. Urte hartako urrian 13 pertsonen gorpuzkinak deshobiratu ziren Priaranza del Bierzon (Leon), tartean, Emilio Silva Fabarenak. Bi urte geroago, 2002ko irailean, Aranzadi lehendabiziko deshobiratzea bururatu zuen Euskal Autonomia Erkidegoan. Zaldibian izan zen, eta bi gizona ziren gorpuzkinak aurkitu zituzten.

Elgoibar1936 taldearekin elkarlanean, deshobiratze horien atzean dagoen guztia jarri dute ikusgai Kultur Etxean. Hilaren 22ra arte bisitatu daiteke “Duintasuna berreskuratuz” izeneko erakusketa. Erakusketa bisuala da, eta ulertzeko erraza. Horrez gain, Pako Etxeberriak hitzaldia eskainiko du hilaren 18an Kultur Etxean, 19:00etan.

2008an sortu zen Elgoibar1936 taldea Elgoibarko Memoria Historikoa berreskuratzeko asmoarekin, eta haien lanari esker bi deshobiratze burutu dira Elgoibarren. Jakin badakite gehiago daudela Elgoibako inguruneetan lurperatuta, baina zehaztasun falta eta ekonomia arazoengatik, zaila ikusten dute deshobiratze gehiago egitea. Hala ere, eurak alor horretan lanean jarraituko dutela azaldu dute, duintasuna berreskuratu eta egia azaleratzeko.

Ekintzaz beteriko asteburua izan da Arriaga auzoan, San Antolin jaiak ospatzeko

Iraila hastearekin bat, San Antolin jaiak iritsi ziren joan zen asteburuan Arriaga auzora. Urtero legez, ekitaldiz beteriko asteburua prestatu zuen Jai Batzordeak, eta eguraldiak gehiegi lagundu ez bazuen ere, umore onean ospatu zituzten auzoko festak. Kiro-la, dantza, musika, bertsoak eta gastronomia uztartu zituzten, besteak beste. Horrez gain, errifaren zozketa ere egin zuten: Kanariar uharteetara bidaia, 3106 (erreserba, 2949) eta janariz eta edariz beteriko karretila, 2125 (erreserba, 2702). Argazki gehiago ikusteko: www.elgoibarren.net



Erromeriaren barruan dantza lehiaketa egin zuten.



Eider Iriondo, Euskal Iron proban.



Mendaroko giza taldeak ezin izan zion Urkiagako astoari irabazi. 58 plaza eta 95 zm. egin zituzten mendarorrek.



67 plaza, bi zinta eta hiru metro eta erdi egin zituen Eibarko Urkiagaren 'Pantxo' astoak.



Umore onean joan zen bertso afaria. Julio Soto eta Beñat Gaztelumendi aritu ziren bertsotan.



Felixek eta Bixentek irabazi zuten mus txapelketa.

Gau Krosa antolatu du Mintxeta atletismo taldeak biharko

16 urtetik gorako edonork hartu dezake parte

Atletismoak hartuko ditu bihar El-goibarko kaleak, izan ere, Gau Krosa antolatu baitu Mintxeta atletismo taldeak. Orain dela lau urte antolatu zuten estreinakoz Gau Krosa, Murgertza kroserako dirua lortzeko, eta horregatik, herritarrek animatu nahi dituzte parte hartzera. 16 urtetik gorako edonork hartu dezake parte, eta korrikalariak 7,7 kilometroko ibilbidea osatu beharko dute. Aurrez izena eman ez dutenentzat, bihar bertan ere egongo da aukera: txipa dutenek 8 euro ordaindu beharko dituzte, eta txipa alokatu behar dutenek, berriz, 10 euro. Dorsalak gaur arratsaldean jaso beharko dira, Sanlok Maalako parkean jarri duen karpan, edo bihar, lasterketa hasi aurretik Kalegoen plazan. Gau Krosa 20:00etan hasiko da. Antolatzaileek jakinarazi dute krosek partaideek deskontuak izango dituztela garagardo ferian.

Sariak

Junior, absoluto eta beteranoen mailak bereiztu dituzte. Beteranoetan lehe-



nengo emakume zein gizonezkoak txapela eta garaikurra jasoko dute, eta gainerako mailetan irabazleari eta lehen herritarri emango diete saria. Era berean, partaide guztiak elastiko bana jasoko dute, eta helmugara iristean produktuz beteriko poltsa bana emango diete. Proba amaitzean, Olaizaga kiroldegian duxatzeko aukera egongo da.

Emakume kirolarien lehen batzarra, martitzenean

Udaleko Berdintasun Sailak emakume kirolarien taldea sortu nahi du, eta horretarako bilerara deitu ditu herriko emakumeak. Edozein motatako kirola egiten duten emakumeak nahi dituzte taldean, federatuak edo federatu gabek. Kirol alorrean ere emakume eta gizonezkoen arteko berdintasuna sustatu nahi dute. Emakumeek dituzten beharrak ezagutu nahi dituzte, baldintza horiek hobetuz emakumeen partaidetza kirolean handitzeko. 19:00etan izango da bilera, Kultur Etxean. Bilera irekia da eta nahi duen orok hartu dezake parte.

Spinning eta saltsa ikastaroak

Kirol Patronatuak ikastaro berriak antolatu ditu ikasturte berrirako. Batek, DBHko gazteentzako spinning eskolak prestatu dituzte. Ostiraletan izango da ikastaroa, 18:00etatik aurrera, Mintxetan. Interesatuak, irailaren 20an eta 27an doan probatzeko aukera izango dute. Bestalde, saltsa ikastaroen ate irekiak antolatu dituzte. Irailaren 16an eta 23an arratsaldeko 20:30ean, eta irailaren 20an eta 27an, 15:00etan. Interesatuak kiroldegian bertan edo Mintxetan eman dezakete izena.

Asteburuan hasiko du Concepto Egile areto futbol taldeak aurtengo denboraldia



Mailaz igotzeari uko egin behar izan zion Concepto Egilek iaz, ezin ziotelako lehenengo mailak eskatzen dituen gastuei aurre egin. Hortaz, aurtan ere bigarren maila jokatu du Debabarrena klubeko talde nagusiak. Asteburu honetan jokatuko dute estreinako partida Guadalajaran, Siguenza taldearen kontra.

Arrazoi desberdinak medio, iazko denboraldi amaieran hainbat jokalarik taldea utzi zuten, eta fitxaketa berriak egin behar izan dituzte. Jota Arregi entrenatzailearekin batera, ondorengo jokalariek ekarri dituzte: Mikel Treviño, Javier Azkoiti, Raul Erice, Iraitz Olasagasti, Javier Perez eta Rafael Berlanga.

SANLOBEER FEST



Sanloko zuzendaritzako kideak. Ion Sanchez eta Carlos Ayesta falta dira argazkian. Beheko ilaran, ezkerretik bigarrena da Cesar Arriola.

Kirola eta jaia uztartzeko aukera izango da asteburuan Elgoibarren. Trinitateetako Danborradako taldeari lekukoa hartu dio aurten Sanlo eskubaloi taldeak, eta SanloBeer Fest jaia antolatu dute. Klubaren aurrekontuari aurre egiteko dirua biltzea da jaialdiaren helbura, bereziki, baina kluba bera eta eskubaloia herriratzea ere nahi dute arduradunek. Atzo zabaldu zuten karpa, eta domekara bitartean, Alemanian egiten den October Fest ezagunaren itxura hartuko du Maalako parkeak. Musika, dantza, janedana eta kirola izango dira nagusi, baina denboraldiari hasiera emateko eta klubeko taldeak aurkezteko ere baliatuko dute asteburua. Cesar Arriola klubeko presidentek eman dizkio BARRENI aurtengo denboraldirako dituzten helburu eta asmoen berri.

Ainhoa Andonegi

“Herri guztiari gonbidapena egin nahi diot SanloBeer festara etortzeko”

CESAR ARRIOLA, Sanloko presidentea

Danborradako antolatzaileen lekukoa hartu duzue aurten.

Bai. Erreleboa eskatu ziguten, eta horrelako asteburu bat galtzea pena izango zela pentsatu genuen. Kluba handia da, eta diru-iturri berriak oso ondo etorriko zaizkigu.

Nolakoa izan da SanloBeer Fest jaiaren antolakuntza?

Tanborradako esperientzia jaso dugu batetik. Bestalde, guk urtero Sanlo Festa antolatzen dugu 500 bat pertsonentzat eta horrek ere lagundu digu. Klubeko guraso

eta jokalaria seniorrak ere inplikatu dira festa honetan, eta espero dugu dena ondo irteatea. Ez dugu zailtasun berezirik eduki, eta dena ahalik eta hoberean lotzen saiatu gara. Hala ere, seguru hanka sartzeren bat izango dela.

Zenbateko aurrekontua du Sanlok denboraldi honetarako?

lazkoaren antzekoa da: 120.000 euro inguruan ibiliko gara. Ez da erraza izaten aurrekontua betetzea baina momentuz lorzen dugu. Garrantzitsua da guretzat zorrik ez egitea, eta kirol helburuez gain, horixe izaten da gure helburuetako bat.

Zenbat talde eta jokalaririk izango dituzue aurten?

14 talde izango ditugu aurten ere. Olaizaga kiroldegiko kantxa gainezka dago, eta entrenatzeko edota partiduetarako ordu gehiago eskuratzea zaila da. Senior mutilak astean bi aldiz Debako kiroldegira joaten dira entrenatzera, Elgoibarren ezin diegularako kantxa osoko ordurik eskaini. Tramite hau Elgoibarko Udalak egin digu, eta eskerrak eman nahi dizkiegu. Eskubaloia Eskolan alebinetako beste hiru talde izango dira. Guztira 300 bat fitxa izango ditugu.

Zeintzuk dira denboraldirako helburuak?

Helburuak iazko antzekoak dira: Senior mutilak eta neskek kategorian mantentzea nahi genuke. Jubenil eta kadete neskek Euskadiko fase finalean sartzea eta mutilak euskal ligara igotzea. Txikiak, berriz, ikasten joatea, ahalik eta maila handiena rekin igotzen joateko.

Senior nesken taldeak sekula egon ez den mailan jokatu du aurten. Nola egingo diozue aurre maila horri?

Bai, sekulako maila da gurea moduko herri batentzat. Gipuzkoatik Zarautz eta gu bakarrik gaude. Gure helburua mantentzea da eta neskek maila hau ezagutzea eta esperientziak gozatzea. Euskadiko txapelketa bi urtez jarraian irabazi ostean horrelako erronka bat merezi zuten.

Aurten nazioartean ere izan da Sanlo, Eslovenian. Nolako esperientzia izan da?

Gurasoen lanari esker egin ahal izan dugu ekintza hau, eta oso positiboa izan da. Vucik ekarri zuen proposamena eta ilusioz egin dute lan. Umeentzat sekulako esperientzia izan da; ez dute inoiz ahaztuko, eta gurasoak ere pozik bueltatu dira. Kirol arloa baino garrantzitsuagoa zen kasu honetan umeen esperientzia hau eskaintzea.

Sanlo Eskolak gaztetxoekin lanean dihardu. Nolako fruituak ematen ari da?

Eskubaloia Eskola oso ondo dabil. Kirol arloan neskek eta mutilak Gipuzkoako txapel-

dunak izan ziren iaz, baina lanik garrantzitsuen eskubaloia irakastea da, eta horretan lan bikaina egiten dute. Umeak eskubaloia erakartzeko udalekoa egin dugu aurten Canfrancen, irteerak beste herri batzuetako topaketetara, Elgoibarko plazara eskubaloia atera... Hala ere, zailtasun handiak izaten ditugu mutilak erakartzeko, eta hemendik dei egin nahi diegu entrenamenduren baten parte hartu eta izena emateko.

Presidente bezala, zer eman dizu Sanlok eta zer ematen diozu zuk Sanlori?

Ez dut nahi presidentearen papela gorai-patzea. Ni zuzendaritzako kide bat naiz, presidente papera betetzen dudana, baina beste bat tesoreroa da, bestea erosketa arduraduna, marketing-a egiten duena bestea... Talde lana gorai-patzea nahiko nuke, horrek ematen baitigu jarraitzeko indarra. Guk Sanlori lana ondo egiteko borondatea eskaintzen diogu, eta era berean, klubari nortasuna ematen ari garela uste dugu, gure aurrekoek egin zuten bezala.

Iazko denboraldiaren balorazio positiboa egin zenuten, bai kirol alorrean eta baita alor ekonomikoan ere. Zein da arrakasta horren sekretua?

Lana, argi eta garbi. Kirol alorrean jokalariek eta teknikoez aste guztian egiten duten lanak txapelketetan jasotzen dituzte emaitzak. Eta ekonomikoki, babesleen laguntza, jarraitzaileen babesna eta, nola ez, jokalariek eta gurasoen lana ezinbestekoa da: Txosna, loteria... Euro bakoitza zaintzen dugu, eta gastatu aurretik gastu hori egitea beharrezkoa den aztertzen dugu.

Noraino iritsi daiteke Sanlo?

Seguraski handiago egitea posible izango da, baina momentuz, goia jota dagoela uste dugu. Talde gehiagok ez du kluba handitzen: talde bakoitzak entrenatzaile on bat behar du, lana egiteko materiala eta espazioa... Ezin gara gehiago hazi. Jokalari eta talde bakoitzari gutxieneko baldintza batzuk eman behar zaizkio eta momentuz, horrek jartzen digu muga.

Besterik?

Herri guztiari gonbidapena egin nahi diot SanloBeer Fest-era etortzeko, urtean behin egiten den asteburu berezia delako. Ondo pasatzeko gune bat izango delakoa gaude; gu behintzat ahaleginduko gera horrela izan dadin.



13, BARIXAKUA

18:00 Karparen irekiera

18:30-20:30 Gau kroserako dortsalak banatuko dituzte

23:00 Dantzaldia

14, ZAPATUA

10:00 Klubeko argazki ofiziala

11:00 Taldeen aurkezpena

Maalan. Euria egiten badu, Mintxetan.

11:00 Txistorra jana

Karpan.

11:30 Emakume beteranoen partida.

Elgoibar-Gasteiz. Olaizaga kiroldegian.

13:00 Gizonezko beteranoen partida.

Olaizaga kiroldegian.

14:30 Beteranoen bazkaria.

Karpan.

Ondoren, dantzaldia.

22:00 Kontzertua

The Romanticos taldearekin.

23:30 Dantzaldia

15, DOMEKA

12:00 Karparen irekiera

14:30 Paella jana

Tiketak 5 euroan egongo dira salgai eta aldeaz aurretik erosi behar dira.

ASTEBURU OSOAN...

- Garagardoa

- Ukondoa

- Salbitxak

- Ollaskoa

- Patatak

- ...

San Bartolome jaietako harmonia, tolerantzia eta alaitasuna nabarmendu ditu Elgoibarko Udalak

Udaltzaingoak jai lasaiak izan direla azaldu du

San Bartolome jaien balorazioa egin du Udalak, eta besteak beste, jaietako harmonia, tolerantzia eta alaitasuna nabarmendu ditu Amaia Txurruka kultura zinegotziak. Horrez gain, elgoibartar guztiak zoriondu dituzte, jaietan izan duten giro ona eta inplikazioagatik. Ikuskizun eszenikoen programazioa kontsolidatu egin dela azaldu du Txurrukak, eta oro har oso jendetsuak izan direla uste du. Aurtengo berrikuntzen artean, Gazteen Eguneko kontzertua Maalan antolatu zuten, eta giro “ona” izan zela azpimarratu dute. Era berean, Maalako jai batzordearen eta Udalaren arteko lankidetzak “positibotzat” jo dute. Euria egin arren Txiki Eguna oso arrakastasua izan zen, eta herritarren inplikazioaz gain, Mauxitxari eman dizkiote eskerrak. Ekitaldi jendetsuena, bestalde, goitibehera izan zela adierazi dute.

Jai lasaiak

Javier Oñederra udaltzainburuak “intzidentziarik eza” azpimarratu du eta lasaitzat jo ditu 2013ko festak. Delituzko esku-hartzeak gutxitu egin direla ohartarazi du, eta lapurreta eta ondasun-kal-



teei buruzko salaketek ere behera egin dutela azaldu du. Aipatze-koen artean, 16 urtetik beherakoei egindako hiru esku-hartze aipatu ditu, alkoholaren eraginpean zeudela-eta hirurek osasun asistentzia behar izan zuten-eta. Domekan egiten diren sokamuturrei beldurra dietela onartu du udaltzainburuak, baina aurtengo aurreko urteetan baino arazo gutxiago izan zituztela adierazi du. Balorazioa osorik irakurtzeko: www.elgoibarren.net

‘Ez gara Palestinaz ari’ ikuskizuna izango da gaur zortzi, Herriko Antzokian



Ez gara Palestinaz ari emanaldia antolatu du Elgoibarko Izarrak datorren barixakurako. Bi saio eskainiko dituzte: 11:00etan nerabeentzako, eta gainerako herritarrentzako saioa 20:30ean izango da. Biak ere Herriko Antzokian egingo dituzte.

Unai Muñoz eta Ander Lizarralde bertsolariek sortutako ikuskizuna da, eta bertsoak, musika eta antzerkia nahasten ditu. Aitor Atxegak gitarra joko du, eta Imanol Kamiok, berriz, akordeoia eta pianoa. Haurtzaroz, egoaz, askatasun pertsonalaz, beldurraz eta gizotasunaz mintzatuko dira, besteak beste.

Lodosara irteera, irailaren 25ean

Jubilatuena Egoitzak Lodosara irteera antolatu du irailaren 25erako. Peron kontserba etxea bisitatuko dute lehenengo eta ondoren, luntxa izango dute fabrikari bertan. Lodosan bazkaldu eta arratsaldea Haron pasatuko dute. 8:15ean irtengo da autobusa Elgoibartik, eta iluntzerako itzuliko dira. Plazak mugatuak direla jakinarazi dute antolatzaileek. Irteeraren prezioa 40 eurokoa da.

Folklore Jaialdiko zozketaren emaitzak

Txankakua Merkatarik Elkartek Nazioarteko Folklore Jaialdian egindako zozketaren emaitzak ondorengoak dira:

- Bost euroko sarrerak: 021 (ordezkoa, 101) eta 083 (ordezkoa, 172).
- Hiru euroko sarrerak: 1.128 (ordezkoa, 1.091) eta 1.084 (ordezkoa, 1.061). 60 euroko erosketa txekia jasoko du bakoitzak.

Zinemaldietan nabarmendutako lau film eskainiko ditu Ongarrik irailean

Irailearen 19an izango da lehenengo pelikula, 21:30ean

Donostiako Zinemaldiaren harira, zine ziklo berezia prestatu du Ongarri zine-klubak. Aurtengoan zinemaldi desberdinetan saritutako lau filma eskainiko dituzte, irailaren 19tik 30era bitartean. Lehenengoa Arabia Saudin ekoiztutako *La bicicleta verde* izango da. Pelikula honek 2012ko Veneziako zinemaldian arte eta saiakera onenaren saria jaso zuen. Eguenean emango dute lehen saioa 21:30ean, eta barixakuan 22:15ean. Gainerako filmak hauek dira: *Antes del anochecer* (AEB), 2012ko Berlingo zinemaldiko sail ofizialean eman zuten filma; *Dias de pesca en la Patagonia* (Argentina), 2012ko Donostiako eta Torontoko sail ofizialean eman zuten; eta azkenik *Una casa en Córcega* (Belgika), 2012ko Amienseko zinemaldiko pelikula onenaren saria eta publikoaren saria jaso zituen.



Ayurveda tailerra antolatu dute irailaren 28rako

Haizea Emakume Taldeak Ayurveda tailerra eskainiko du iraileko azken zapatuan. Indiar jatorriko medikuntza sistema bat da Ayurveda, eta horren barruan, elikatzeko modu desberdinak lantzen dira. Bizitza osasuntsu baterako oinarriak irakatsiko dituzte, besteak beste. 10:30etik 13:30era izango da saioa, eta 35 euroko prezioa dauka. Plazak mugatuak dira. Interesatuek Pitxintxu liburu-dendan edo haizeataldea@gmail.com helbidean eman dezakete izena.

Pintura eta eskulan ikastaroak, Mendaron

Pintura eta eskulan ikastaroak antolatu ditu Mendaroko Udalak datorren ikasturterako. Urrian hasiko dira eskolak, eta ekainean amaituko dituzte. Saiok astelehen eta eguaztenetan izango dira, 18:30etik 20:00etara. Matrikularen prezioa 60 eurokoa da, eta gero, hilean hamar euroko kuota ordaindu behar da. Urtarriletik aurrera 120 eurokoa izango da ikastaroaren kostua, eta apirilean izena ematen dutenentzat, aldiz, 90 eurokoa. Taldeak mugatuak izango dira, gehiezin hamar lagunekoak, eta izenemate ordena errespetatuko da. Izena emateko edo informazio gehiagorako Mendaroko Udalera jo daiteke.

'Dantzan.com' atariaren aldeko zozketa

Iñaki San Martin Soarte argazkilariak jaietan egindako erakusketan *Dantzan.com* atariaren aldeko errifak saldu zituzten Haritz Dantza Taldeko kideek, eta 159 zenbakiari egokitu zaio saria. Zenbaki horren jabeak Soarteren lan bat jasoko du saritzat. Hilabeteko epea dago saria eskuratzeko, eta horretarako, Soarte argazki dendarara jo behar da.

Aitor Asenjok irabazi zuen Zarauzko Aurreku eta Soinu Zahar txapelketa mutiletan



Zarauzko Aurreku eta Soinu Zahar Txapelketa jokatu zuten zapatuan, senior mailan, eta urtero bezala, Elgoibarko hainbat dantzari hartu zuten parte bertan. Mutiletan, Aitor Asenjo elgoibartarrak jantzi zuen txapela, eta nesketan, hirugarren egin zuen Arantxa Ferreirok. Andrea Arregik bosgarren egin zuen, Alaitz Egañak seigarren eta Itziar Aldalurrek zortzigarren. Elgoibarren entsegatzen duen Ixone Juaristi debarra hamargarren postuan sailkatu zen. Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolako arduradunek zorionak eman nahi dizkiete dantzari guztiei, txapelketan erakutsi zuten mailagatik.

LANA

ESKAERA

- Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Ordu-tegi malgua. ☎ 618 814 064
- Lizentziatua eskaintzen da matematika, fisika, marrazketa... eskolak emateko. Euskaraz zein gaztelaniaz, DBHn eta Batxilergoan. Taldeka edo banaka. ☎ 699 495 278
- LH eta DBHko klase partikularrak emango nituzke. ☎ 637 010 168
- Alemaniera eskolak ematen dira. Metodo erraza eta atsegina. Ikasle trukea eta azterketen prestaketa (EOI). ☎ 670 793 312
- Emakume euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Elgoibarren edo Eibarren lan egiteko prest. Klinika titulua daukat. ☎ 619 511 789 (Itxaso)
- Frantsesa, latina, euskara eta gaztelania eskolak ematen ditut. ☎ 617 114 185
- Emakumea lanerako prest. Interna moduan ere bai. ☎ 632 395 829
- Emakume arduratsua eta esperientziaduna eskaintzen da, nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Ordu-tegi malgua. ☎ 682 255 834
- Emakumea lan bila: sukalde laguntzaile, zerbitzari, nagusi edo ume zaintzaile, garbitzaile... ☎ 606 354 982
- Mutila eskaintzen da baserri inguruak garbitu, animaliak gobernatu, ortuak zaindu edo beste hainbat lan egiteko. ☎ 650 710 139 (Aitor)
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko edo garbiketarak egiteko. ☎ 646 821 678
- Neska gazte euskalduna arratsaldetan umeak zaintzeko prest. ☎ 615 124 660
- Emakumea garbiketarak egiteko edo nagusiak zaintzeko prest. Orduka, goizez. ☎ 699 232 823

- Emakumea lan bila. Orduka, goizez. ☎ 672 584 590
- Emakumea garbiketara lanak egiteko prest. ☎ 616 328 060
- Emakumea nagusiak zaintzeko prest. Orduka edo internan. ☎ 608 820 954
- Emakumea eskaintzen da etxean zein ospitalean adinekoak zaintzeko. Gauzez ere bai. Esperientzia eta autoa. ☎ 600 005 160
- Magisteritzako ikasleak klase partikularrak ematen ditut. ☎ 634 588 605 (Itxaso)
- Emakumea lanerako prest. Orduka. ☎ 680 121 252
- Emakumeak orduka lan egingo luke. Nagusiak zaintzen eta garbiketarak egiten esperientzia. ☎ 619 690 415
- Emakumea lanerako prest. Asteburuetan ere bai. ☎ 690 359 554
- Emakumea umeak edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ 666 008 974
- Emakumea nagusiak zaintzeko prest. Interna ere bai. ☎ 648 505 985
- Gizonezkoa eskaintzen da adinekoak zaintzeko edo baserrian lan egiteko. ☎ 686 077 316
- Emakumea lanerako prest: ume edo nagusi zaintzaile, garbitzaile, zerbitzari, sukalde laguntzaile... ☎ 606 354 982
- Emakumea lan bila: garbitzaile, ume edo nagusi zaintzaile, sukalde laguntzaile... Orduka edo internan. ☎ 638 884 104
- Emakumea garbiketara lanak egiteko prest, goizez zein gauzez. ☎ 696 583 671
- Ingeles eskolak ematen dira, etxez-etxe. ☎ 943 744 062 / 680 319 002

ESKAITZA

- Sukalde laguntzailea behar da Elgoibarren, astean zehar lan egiteko. ☎ 687 051 789
- DBH1 eta DBH4ko ikasleei ingeles eskolak emateko pertsona behar da, Mendaron. ☎ 695 730 442

ETXEBIZITZAK

- Etxea salgai edo alokagai Errosario kalean. Hiru logela, egongela handia, sukaldea eta bainugela. Igogailurik gabe. Berritua. ☎ 647 438 640
- Etxea alokatzen dut altzariekin. Eguzkitsua eta igogailuarekin. ☎ 653 863 482
- Etxea konpartituko nuke beste bikote batekin, Errosario kalean. ☎ 699 813 826
- Seme-alabak dituen bikoteak etxea hartuko luke alokairuan. Hilean 500 euro ordainduko genuke. Berogailua ezinbestekoa. ☎ 684 019 044

GARAJEAK

- Marradun bi garaje salgai Ikastola alboan, 4. eta 5. zenbakietan. ☎ 943 743 125 / 686 480 615
- Garaje itxia alokatzen da Kiroldegi parean. ☎ 689 781 069

BESTELAKOAK

- Lursail txiki bat erosiko nuke herritik gertu. ☎ 646 966 198

KINTOAK

- 1948ko kintoen bazkaria irailaren 28an. 12:00etan batuko dira Kalegoen plazan. Mokadutxo egin, eta ondoren, Sigma jatetxean izango da bazkaria. Interesatuak 65 euro ordaindu beharko dituzte. Laboral Kutxa: 3035 0007 21 0071127835. ☎ 943 742 216 (Julian Mujika)



P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar
 ☎ 943 743 140 - rosapf@telefonica.net



- Etxebizitzen eraikin batean bi etxebizitza ditut. Azken bileran, bozketa egiterakoan, ugazaba bat ez zegoen ados nik bi boto izatearekin; hau da, etxe bakoitzeko boto bat. Zuzena al da? Ugazaba bakoitzak boto bakarra dauka bozketetan, nahiz eta etxe bat baino gehiago kuota batuz osatuko duelako. **Gomendioa: Jabeen Batzordeak egindako bozketaren ondoren jasotako aktetan, azpimarratu egin behar da zenbat etxejabe ematen duten aldeko botoa, aurkakoa eta zenbat abstenitzen diren.**

- Gai gatazkatsuak direnean botazioak isilekoak izan daitezzen eskatu du etxejabe Batzordean. Etxejabeen Batzordean egindako bozketak ezin dira isilekoak izan, ugazaba bakoitzaren partaidetzari dagokion kuota zein den jakin behar dugulako, erabakia, legeak jartzen duen gehiengoaren arabera hartuko delako. Bozketa kontatzerakoan, ugazaben eta kuoten gehiengoari dagokion bikoitza hartu behar da kontuan. **Gomendioa: Zenbait akordiotan zaila da jakitea ugazabei zein partaidetza kuotei dagokien gehiengo legal hori lortu den edo ez. Gainera, bileran ez dauden ugazabek ere bozketaren emaitza alda dezakete.**

ROSA M^a PINTADO: Etxaldean Administrazioako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749





• Zorionak, **Naiara** printzesa, abuztuaren 17an 3 urte egin zenituelako. Marrubizko muxuak Elgoibartik eta Andoaindik.




• Lau urte handi, **Aiora!** Zorionak eta muxu handi bat familiakoen, eta bereziki, Igorren partez.



• Zorionak, **Mikel**, hila-ren 8an 5 urte bete zenituelako. Muxu handi bat familiako guztien partez.



• Zorionak, **Enaitz**, jo-an zen astean 3 urte-txo bete zenituelako. Patxo bat, amatxo eta aitaxo, arreba June eta lagunen partez.



• Zorionak, **Julen**, as-telehenean 6 urte egin zenituelako. Muxu handi bat familiakoen partez.



• Zorionak, **Eneritz**, ze-lako neska handia! Dagoeneko 5 urte! Eguna ona pasa. Etxekoan, eta bereziki, Nagorenen partez.



• Bat, bi, hiru, lau, bost, sei, zazpi... txapeldun! Zorionak **Markel**, zure 7. urtebetetzean.



• Zorionak, gure etxeko **printzesari**, bere hamargarren urtebetzean, etxekoan partez.



• Zorionak, **Mikel**, hila-ren 15ean 6 urte egingo dituzulako. Ondo-ondo pasa eta muxu handi bat aitaxo eta amaxoren partez.



• Zorionak, **Luken**, bihar 2 urte beteko dituzu-eta! Potxolo potxolo jarraitu eta jaso muxu handi bat familia guztiaren partez.



• Zorionak zure urtebetetzean, zorionak belaritik tratzean, zorionak eta bost patxo.



• Bi urte potolo dagoeneko, **Saioa!** Oso ondo pasatu genuen zure urtebetetze egunean. Patxo handi bat etxekoan partez.



• Zorionak, **sorginbo**, irailaren 16an 2 urte egingo dituzulako. Etxekoan partez.



• Zorionak, **Ihintzal** 9 urte bete zenituen hila-ren 11n. Ondo pasa asteburua eta muxu handi bat etxeko guztien partez.



• Zorionak, **Danel**, gaur urtetxo bat bete duzulako. Etxekoan partez.



• Zorionak, **Mikel**, bitxi-to, abuztuaren 10ean 2 urte bete zenituelako. Familia guztiaren partez, bereziki hiru amamen partez.



• Zorionak, **Eriki** Bihar 4 urte! Ondo pasa etxekoan, eta bereziki Sararen partez.



• Zorionak, **Maialen eta Beñati!** zuen urtebetetze egunean. Ondo pasa eta muxu handi bat danon partez.



• Zorionak bikote! Onera opa dizuegu.



• Zorionak, **Saral**, abuztuaren 29an urte bat bete zenuelako, oso ondo pasa genuen!



• Zorionak **Sare**, Arrate egunean 4 urte bete zenituelako. Muxu asko denon partez.

AGURREN ATALEKO PREZIOAK EGUNERATU EGIN DITUGU
Erretratu bakarreko agurra 4€, argazki bikoitza 6€, hirukoitza 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12 €.

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK
Erretratu bakarreko agurra 3 €, argazki bikoitza 5€, hirukoitza: 7€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 10 €.

Argazkiak **eguzten eguerdia** baino lehen ekarri behar dira **BARRENEKO** bulegora, 12:00ak baino lehen, edo barren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali.

13 barixakua

Erakusketa

18:30 'Deshobiratzen, duintasuna berreskuratzen' Elgoibar1936 taldeak antolatuta, Kultur Etxean egongo da ikusgai hilaren 22ra arte.

Feria

19:00 Garagardo feria Sanlo eskubaloi elkarteak antolatuta, Maalako parkean. Domekara arte egongo da zabalik.

14 zapatua

Kirola

20:00 Gau krosa Mintxeta atletismo taldeak antolatuta, Kalegoen plazan.

17 martitzena

Bilera

19:00 Emakumeak kirolean Emakume kirolarien bilera. Kultur Etxean.

18 eguztina

Hitzaldia

19:00 1936ko gerrako deshobiratzeak Pako Etxeberria Aranzadi elkarteko presidentek eskainiko du, Kultur Etxean.


20 barixakua

Aisialdia

17:30 Kiribilka Elgoibarko Izarrak antolatuta, Kalegoen plazan.


Kultura

20:30 'Ez gara Palestinaz ari' Elgoibarko Izarrak antolatuta, antzerki, bertso eta poesia emanaldia. Herriko Antzokian.



Bazkide izateko epea zabalik!
Ikasturte osoko kuota 45€.
Familia ugarientzat eta ongizateko erabiltzaileentzat, deskontuak.
Informazio gehiago ludotekan.

Itzuli gara oporretatik!
Gabriel Kurutzelaegi 4 helbidean aurkituko gaituzue!
Asteartetik igandera
17:00etatik 20:00etara.



BOTIKA ORDUTEGIAK
9:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

Egunez	Gauzez
9:00 - 22:00	22:00 - 9:00
13 Garitaonandia	Garitaonandia
14 Etxeberria	Etxeberria
15 Etxeberria	Etxeberria
16 Fernandez	Garitaonandia
17 Yudego	Yudego
18 Zabaleta	Etxeberria
19 Barrenetxea	Barrenetxea

Fernandez
Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)
Tel: 943 756 142

Ibañez
Rekalde, 1 (Soraluze)
Tel: 943 751 638

Zabaleta
Kalebarren, 9 (Soraluze)
Tel: 943 751 384

ZINEA

«La bicicleta verde»
(Ongarri zinekluba)

19, eguena: 21:30 - 20, barixakua: 22:15

Zuzendaria: Haifaa Al-Mansour. Arabia Saudi eta Alemania. 2012.
Iraupena: 98 min. Drama.
Aktoreak: Reem Abdullah, Waad Mohammed, Abdullrahman Al Gohani. Arabia Saudiko hiriburuan bizi den 10 urteko neskatoren baten istorioa da. Mundu kontserbadorearen biziaren, Wadjda oso aurrerakoia da, ekintzailea, eta debekua mugaraino iristen da beti. Bizikleta bat ikusten du salgai, eta nola edo hala bizikleta hori eskuratu nahi du, Abdullahri lasterketa bat irabazteko. Amak ez dio utziko, emakumeen duintasunaren kontra doalako. 2012ko Venezuelako zinemaldian arte



eta saiakera onenaren saria jasozuen.



I. URTEURRENA

JOSE MARIA ARAMBERRI URRUTIA

2012ko irailaren 13an hil zen, 66 urte zituela.
Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, irailak 14,
arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrobian.
Joango zaretenoi eskerrak alde z aurretik.



I. URTEURRENA

BIBIANA GARMENDIA LASA

2012ko abuztuaren 13an hil zen, 92 urte zituela.
Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, irailak 14,
arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrobian.
Joango zaretenoi eskerrak alde z aurretik.



ESKERTZA

JOSEFA EPELDE ARRIOLA

2013ko abuztuaren 12an hil zen.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA

JESUSA SORALUCE LEYARISTI

2013ko abuztuak 11an hil zen, 84 urte zituela hil zen.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA

JOSE ELIZONDO AROCENA

2013ko irailaren 6an hil zen, 84 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA

IÑAXI ZULAIKA ARRIOLA

2013ko abuztuaren 27an hil zen, 94 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





PAGOAGA S.A.

⊗ Iturgintza ⊗ Berokuntza ⊗ Gasa
⊗ Igeltseritza ⊗ Aroztegia ⊗ Proiektuak
www.pagoagasa.com

Guk eginiko
berrikuntzak!

Sukalde eta bainugelako altzariak
eta etxeko elektrogailuak ditugu



RENOVE PLANA
Galdarak eta leihoak



**ANIMATU!! IRAILAK 30a arte. Kondentsasio-galdarak
200€ra arteko diru-laguntza!**

**Etxeko leihoetan %22ko diru-laguntza edo 400€ko leiho bakoitzeko
gehienez edo 1000€ etxebizitza bakoitzeko gehienez.**

BULEGOA ETA ERAKUSKETA

Pedro Migel Uruzuno, 8 - Tel.: 943 740 512 - Faxe: 943 743 565 - tienda@pagoagasa.com - www.pagoagasa.com

BILTEGIA: San Antolin, 13 - Tel.: 943 740 279 - taller@pagoagasa.com

20870 ELGOIBAR